

2025eko iraila



Itzultzaile neuronalak

Itzultzaile neuronalak adimen artifizialaren sare sakonetan oinarritutako tresnak dira, hizkuntza naturalaren ulermena eta itzulpena automatizatzeko sortuak. Euskararen kasuan, azken urteotan tresna neuronal berriak sortu dira, euskaratik beste hizkuntza askotara kalitate eta gaitasun handiko itzulpenak eskaintzen dituztenak. Bada, gero eta ohikoagoa da itzultzaile neuronalak erabiltzea lan-esparruan. Halere, ez gaude tresna horrek ematen digunaz itsu-itsuan fidatzeko moduan.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

ZER MUGA DITUZTE?

- Terminologia espezializatua: arlo tekniko edo zientifikoetan akatsak sor ditzakete.
- Jatorrizko testu bera erabili arren, posible da behin era batera itzultzea, eta bigarren aldiz beste era batera itzultzea.
- Estiloa eta erregistroa: itzulpena zuzena izan arren, ez du beti testuaren estilo edo tonu berezia jasotzen. Beraz, tresnak eskertzen du egitura argitzea eta sinpletzea; esaterako, bi esalditan bereizita edo bi puntu erabilita.
- Automatizazioaren arriskua: testuak zuzenean kopia aurretik beti berrikusi behar dira, zuzentasuna (ortografia, puntuazioa, gramatika...) eta egokitasuna bermatzeko.
- Izen propioekin asko nahasten dira erabiltzaile automatikoak. Posible da ez idaztea, edo beste izen batekin ordeztzea. Izen berezia izen arrunt batetik hartutakoa denean, makina nahastu egin liteke (ibai izen berezia VS ibai, erreka).

NOIZ ERABILTZEA GOMENDATZEN DA?

- Eguneroko komunikazioan: mezu labur, posta elektronikoa edo ohar azkarretarako.
- Administrazioan eta lanean: lehen zirriborroak prestatzeko, gero sail horretako langile eta arduradunek gainbegiratuta.

Azken batean, itzultzaile neuronalak tresna **lagungarriak** dira, baina **ez dira ordezkagarriak**: testuak egokitze eta euskara aberats eta zuzena zaintzeko, **beti ezinbesteko langintzak dira testuen aurre-edizioa eta post-edizioa, baita gizakiaren begirada kritikoa ere.**

BERAZ...

- Erabili aurretik **jakin zein testutarako den egokia**: testu teknikoak, administrazio-testuak edo eguneroko mezuak.
- Ez hartu itzulpena beti "automatikoki zuzena": **berrikusi** eta, behar izanez gero, **zuzendu** eta **egokitu**.

EUSKARAZKO ITZULTZAILE NEURONAL NAGUSIAK:

ELIA-ELHUYAR

- Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa.
- Erabilaldi bakoitzean, gehienez **100 hitz** itzul ditzake debaldeko bertsioan.
- Dokumentuen kalitateko itzulpen automatikoa egiten du (ohiko formatuak onartzen ditu: Word, PowerPoint, Excel, LibreOffice...).
- Ordenagailuko mahaigainerako bertsioa ere badu.
- Ordainpeko bertsioan 2500 hitz edota dokumentu osoak itzultzen ditu.
- Aplikazioa, Android eta IOS sistemetako gailuentzat. Irudi bateko testua zuzenean itzul dezake.

BATUA

- Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Bizkaiera euskalkira ere itzultzen du.
- Erabilaldi bakoitzean, gehienez **1.000 hitz** itzul ditzake.
- Itzulitako testua PDF formatuan deskargatu daiteke.

ITZULI

- Eusko Jaurlaritzak garatu duen itzultzaile neuronal da, eta erabilaldi bakoitzean gehienez **4.000 karaktere** itzul ditzake.
- Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.
- Testu orokorrak eta juridiko-administratiboak kalitatez itzultzen ditu.
- Aplikazioa, Android eta IOS sistemetako gailuentzat. Mikrofonoa aktibatuta garbi hitz eginez gero, zuzenean itzultzen du.

IVAP ITZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

- IVAPek itzultzaile automatiko neuronal egokitu du testu juridiko-administratiboak itzultzeko.
- **Udalsarean dauden udalek dute erabilgarri.**
- Dokumentu osoak itzultzeko aukera ematen du.

ADITU ELHUYARREN HIZKETA-EZAGUTZAILEA

- Adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarritutako teknologiak biltzen ditu Adituk
- Hiru erabilera nagusi ditu: bideoak eta audioak transkribatzea eta azpigituluak automatikoki sortzea; sortutako transkripzioak eta azpigituluak automatikoki itzultzea; eta ikus-entzunezko edukiak itzultzea eta bikoiztea.
- Sei hizkuntzatan egin daitezke bikoizketak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa.
- Aditu erabiltzeko, erabiltzailea sortu eta ordaindu egin behar da.

BESTE TRESNA BATZUK:

CHAT GPT

- OpenAI enpresak kaleratutako adimen artifizialeko txatbota da
- Eleaniztuna da eta euskaraz ere aritzen da, baina beste hizkuntza nagusi batzuetan baino muga gehiago ditu.
- Bere horretan itzultzeko izan ez arren, itzulpenak egiten ditu eskatuz gero.
- Abantailak: itzulpenaren inguruko zehaztapenak eska diezazkiokegu; adibidez, estilo jakin bat emateko esan diezaiokegu.
- **Adi! Ez dakienean, hitzak asmatu ere egiten ditu.**



Ohiko erdarakadak



✗ **Arnasguneen garrantziaren inguruko hitzaldia eskainiko dute urrian.**

✓ **Arnasguneen garrantziaren inguruko hitzaldia emango dute urrian.**

✗ **Fermin Muguruzak kontzertua eskaini zuen Anoeta estadioan.**

✓ **Fermin Muguruzak kontzertua jo/eman zuen Anoeta estadioan.**

Prentsaurrekoa eskaini

Erdararen kalkoz —es: ofrecer, fr: offrir—, ez dagokion adiera ematen zaio batzuetan.

Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



AUKERA ≠ ESKAINTZA

Zain dezagun euskara!